

**ERABAKIA, 2020ko AZAROAREN 5ekoa, UPV/EHUko IRAKASLE-
IKERTZAILEEN ARLOKO ERREKTOREORDEARENA, UPV/EHUko
IRAKASLEEN ORDEZKOAK EGITEKO ZERRENDA BERRIAK OSATZEKO
LEHIAKETA PUBLIKOAN ONARTU ETA EZ ONARTUEN BEHIN BETIKO
ZERRENDA ONARTZEKO DENA.**

EGITEZKO AURREKARIAK

Lehenengoa. 2020ko ekainaren 3ko erabakiaren bitartez UPV/EHUko irakasleen ordezkioak egiteko zerrenda berriak osatzeko deialdi publikoa egin zen.

Bigarrena.- Lehiaketan parte hartzeko eskariak aurkezteko epea 2020ko ekainaren 24ean amaitu zen eta 2020ko urriaren 16ko erabakiaren bidez onartu eta ez onartuen behin-behineko zerrenda eman zen argitara. Halaber, erreklamazioak aurkezteko eta errakuntzak zuzentzeko 2020ko urriaren 30eko bitarteko epea zabaldu zen.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.- Honako hauek dira aplikagarri kasu honetan: Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legea (urriaren 2ko EAO); 3/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Euskal Unibertsitate Sistemarena (martxoaren 12ko EHAA); Zuzendaritza Kontseiluaren funtzionamendu-arloak eta egitura eta eginkizunen eskuordetzea zehazten dituen Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen 2017ko urtarrilaren 25eko erabakia (2017ko otsailaren 3ko EHAA); 2011ko martxoaren 11ko UPV/EHU irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordearen ebazpena, irakasleen ordezkioak egiteko izengaien zerrendak gestionatzeko arautegia onartzen dena (2011ko martxoaren 25eko EHAA); 2020ko ekainaren 3ko erabakia, deialdia egin zuena, eta aplikatu beharreko gainerako arau orokorrak.

Bigarrena.- UPV/EHUko Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordeak eskumena du, eginkizunen eskuordetzan, erabaki hau emateko, Zuzendaritza Kontseiluaren funtzionamendu-arloak eta egitura eta eginkizunen eskuordetzea zehazten dituen Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen 2017ko urtarrilaren 25eko erabakiaren babesean.

Hirugarrena.- 2020ko ekainaren 3ko erabakiaren bidez deialdi publikoa egin zen UPV/EHUko irakasleen ordezkioak egiteko zerrenda berriak osatzeko. Erabaki horretan jasota dago errakuntzak zuzentzeko eta behin-behineko zerrendaren aurka erreklamazioak aurkezteko epea amaiturik, zerrenda hori behin betiko bihurtuko dela. Bestalde, hilabeteko epean horren aurka egiteko berraztertze errekurtsoa aurkez daitekeela ere xedatzen du edo administrazioarekiko auzi errekurtsoa jar daiteke Bilboko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian hilabete biko epean.

Hori guztia kontuan hartuta, eta nire eskumenak erabiliz, honakoa:

ERABAKI DUT

Lehenengoa.- UPV/EHUko irakasleen ordezkioak egiteko zerrenda berriak osatzeko lehiaketa publikoan onartu eta ez onartuen behin betiko zerrenda onartzea (lehiaketa 2020ko ekainaren 3ko erabakiaren bidez deitu zen).

Bigarrena.- Erabaki hau argitaratzea Deialdi eta Lehiaketa Ataleko iragarki-oholean eta unibertsitateko webgunean.

ERREKURTSOAK

Erabaki honek administrazio bidea amaitzen du. Bere aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakiok Euskal Herriko Unibertsitateko Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordeari hilabeteko epean, erabaki hau webgunean argitaratzen denetik hasita. Bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jar daiteke Bilboko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian hilabete biko epean, erabaki hau argitaratzen denetik hasita (Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa; 123. artikulua eta hurrengoak).

Leioan, 2020ko azaroaren 5ean.

ERREKTOREA

Eginkizunak eskuordetuta (errektorearen 2017ko urtarrilaren 25eko Erabakia, 2017/02/03ko EHAA)

Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordea

Izptua.: Inmaculada Guericagoitia Marina